



VI AKTA

Gaia: Enpresa Arduradunaren lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan lan egiteko. Azken erabakia.

Prozesua:

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan Enpresa Teknikari bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarrizketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Elkarrizketak amaitu ondoren, eta merituen ebaluatuta, Epaimahaiak prozesuaren fase guztiak GAINDITU dituzten hautagaien behin-behineko lehentasun-ordena prestatu du.

2021eko maiatzaren 31ko Epaimahai buruaren Ebazpenak behin-behineko lehentasun-ordena argitaratu eta 10 eguneko epea eman zuen elkarrizketen prozesuari erreklamazioak egiteko. 2021eko ekainaren 10ean amaitu zen erreklamazioak egiteko epea eta behin aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, jarraian behin-betiko aukeratutako hautagaiaren izena argitaratzen da:

Andres F. Portillo

Eta ordezeko hautagaiak:

Número de Registro
4051753
4050142

Deialdiaren oinarrien arabera, hautagaiak hamabost (15) egun naturaleko epea izango du Ordezkaritzak eskatu dakizkion jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuek aurkezteko, horrela eskatutako eta adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.



Gehienez berrogei (40) egun naturaleko epea zehaztu da lan-kontratua sinatzeko.

New Yorkeko hirian, 2021eko ekainaren 17an.

Unai Telleria
Ordezkarria

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Felipe Victoria
Erakunde Arduraduna

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkarria